

56. FITXA Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Liburutegi publikoen titularrak diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, toki-erakunde eskudunak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal-liburutegi publikoen arloan eginkizunak esleituta dituzten udal-erakundeak.

Sarbide-esteka: [Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edota garatzeko 2024ko dirulaguntzak - Eusko Jaurlaritza](#)

Erreferentziatzko araudia: [AGINDUA, 2024ko uztailaren 3koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko eta garatzeko dirulaguntzen oinarriak, eta laguntza horien deialdia iragartzen baita](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 300.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/09/23

Laburpena

Deialdi honek **Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko** 2024 ekitaldirakodirulaguntzak arautzen ditu.

Udalerrri bakoitzean onuradun bakarra egon daiteke; beraz, udalerrri batean eskabide bat baino gehiago badago, udalaren eskabideak lehentasuna izango du gainerako entitate eskatzaileen eskabideen aurretik.

Eskatzaile bat baino gehiago badago, eta horietako bat ere udala ez bada, liburutegi gehien kudeatzen dituen entitateak izango du lehentasuna. Azken kasu horretan, entitate eskatzaileek liburutegi-kopuru bera kudeatzen badute, liburu-funts gehien dituenak izango du lehentasuna.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu ahal izango dira Euskadiko Irakurketa Sare Publikoko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edota garatzeko beharrezkoak diren elementuak erosteko zein instalatzeko jarduketara bereziak, baldin eta 2024ko ekitaldian gauzatzen badira eta 100 €-tik gorako kostua badute.

Zehazki, hauek eskuratzeko eta instalatzeko emango da dirulaguntza:

- a) **Hardwarea edo euskarri fisikoa.** Ordenagailuak eta haien osagaiak sartzen dira multzo honetan, bai eta funtzionamendurako edo erabilerarako beharrezko den beste edozein elementu material ere, bai modu autonomoan jarduten denean, bai sarean egiten denean (mahai gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, pdak, eskanerrak, pantaila lauak, periferikoak, routerrak, biltegitratze-unitateak, txartel grafikoak, saguak, aurikularrak, inprimagailuak, liburu elektronikoen irakurgailuak, tabletak eta abar).
- b) **Softwarea edo informatika-sistemen euskarri logikoa.** Alegia, halako ataza zehatz bat egiteko beharrezkoak diren programa eta prozeduren multzoa. Horretarako, atal honetan sartzen dira liburutegi-kudeaketarako sistemak ez diren sistemen softwarea eta aplikazioen softwarea.
- c) **Telekomunikazioak.** Komunikazio-sareak instalatzea, bai hari bidezkoak bai haririk gabekoak.

Laguntzen zenbatekoa

Jasotako dirulaguntzak ez du gaindituko diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren **% 90**, eta ez da inolaz ere **100.000 €-tik** gorakoa izango entitate onuradun bakoitzeko.